

## Ilargi-zatiak enkantean

Iazko abenduan Ilargiko zolutik ekarritako hiru ale txiki (guztira 0,2 kilate ere ez zituzten), 65 milioi pezetatan (edo 2,6 milioi



Iazko abenduan Ilargiko zolutik ekarritako hiru ale txiki, 65 milioi pezetatan saldu ziren, hau da, pisu bereko diamantea baino mila aldiz garestiago ordaindu ziren.

liberatan) saldu ziren, hau da, pisu bereko diamantea baino mila aldiz garestiago ordaindu ziren.

Ilargiko ale txiki horiek sobietarren *Luna 16* zunda automatikoak jasozituen eta erregolitozko bi kristal eta kuartzo-apur bat dira. 1970. urtean ekarri zituzten Lurrera, Ugalmen-itsasotik jasotako 100 gramo laginekin batera.

Eroslerik balego, prezio horretan *Apollo* misioe-

tan Lurrera ekarritako 381 kilo laginek 95 bilioi pezeta (edo 5 bilioi libera) balioko lukete. Ilargira edo Martitzera bidaia egiteko ez litza-teke laguntza makala!

## Haria orbitan ipini nahian

Espazioan kilometro batzuetako haria zabaltzea ez da baxterre erraza. *Atlantis* espaziuntziko astronautek 1992. go abuztuan, TTS satelite italiarra lotuta eduki ondoren gero berengandik urrunduarazi ezinik ibili ziren. Askatutako haria espazioan nola portatzen den jakiteko sistematikoki egin dira saiakuntzak. 1993. urteko martxoan 20 kilometro luzeko polietilenoazko hari bat zabaldu zen. Urte bereko ekainean, berriz, 500 metro luzeko kobrezko hari bat kokuatu zuten ondoan.

NASAK aurten ere martxoan Delta jaurtigailua espazioratu duenean beste saiakuntza bat egin du. Jaurtigailuaren bigarren moduluari 0,8 mm lodiko polietilenoazko hari baten muturra lotu zitzaion. Haria aluminiozko 26 kiloko ontzian bilduta zegoen eta jaurtiketatik ordu batera Lurretik 351 kilometrorra zegoela, aluminiozko ontzia bota egin zen. Bi ordu barru haria luzatuta zegoen eta aluminiozko ontziak hariaren tentsioa eta orientazioa adierazteko

neurgailuak ditu. Hariak hautsi gabe zenbat denbora iraungo duen jakin nahi da.

## Ulises Eguzkiaren aurpegi ezkutuan

Joan den irailaren 13an, espazioko *Ulises* zunda lehen aldiz Eguzkiaren hego polora hurbildu zen. Lau urteko bidaia egin du Eguzki-sisteman, eta Jupiter planetatik ere bere informazio balioetsua bidali du. Hirurehun milioi kilometroko distantziatik Eguzkiaren eremu magnetikoa neurtuko du. Astrofisikariek diotenez

poloetan Eguzkiak erupziorik ez du eta poloan parean Eguzki-haizeak edo plasmak (koroak igortzen dituen gas ionizatuzko zorrotadak) 700 eta 1.000 km/s bitarteko abiadura lortzen du, nahiz eta ekuatorean 400 km/s-ko abiadura besterik izan ez.

Horrez gain Eguzkiaren poloek badute beste ezaugarri bat. Eremu magnetikoko lerroak zuzenak ditu eta izarrarteko izpi kosmikoak irensteko bide bakarra dira.



Joan den irailaren 13an, espazioko *Ulises* zunda lehen aldiz Eguzkiaren hego polora hurbildu zen. Hirurehun milioi kilometroko distantziatik Eguzkiaren eremu magnetikoa neurtuko du.

